



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 19a

19. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, garapen ekonomiko eta sozialerako finantzaketa eskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorriko dio Eledunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2016rako aurrekontuetan emakumeen elkarreentzako diru-laguntzen kontusail bat jaso dezan eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren aurrekontua handitu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera. Mozioa erretiratzea (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten baitie Volkswagen-ek Nafarroan duen lantegiko zuzendari eta langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu lehentasuna eman diezaion, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide den aldetik, Mendebaldeko Sahararako Bake Plana betetzeari. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu giza eskubideen aldeko ekintzaile saharar Hassanna Aaliaren atxiloketa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu sakondu eta landu ditzan Nekazaritzako Ustiategien Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta Berdintasunaren 3/2007 Lege Organikoa, eta Emakumezko Nekazari eta Abeltzainen Estatutu bat presta dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, Hitzarmen Ekonomikoa aldeztekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak hitzarmen ekonomikoa defendatzen baitu, eta justifikaziorik gabeko erasoak arbuiazen baititu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Landa Ingurunekeo Emakumearen Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere erabateko gaitzespena adierazten baitu Osborneren zezena, zeina Tuteran baitago, eraitsi dutela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aldeketasuna adierazten baitu Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunaren kariatara Nafarroan egiten diren ekitaldiak direla-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen garapenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Sarrigurengo osasun etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak erretiratu egin den irakasle funtzionario baten aurka 2012ko Riau Riau-an izandako istiluetan parte hartzeagatik zegoen akusazio partikularretik. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin dute (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (18. or.).
- Galdera, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta gartzeko. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Patronatuaren osakerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kideen ondasun aitortzei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (20. or.).
- Galdera, pertsona transexualen arreta integralari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (21. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak. (22. or.).
- “Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoa” gaiari buruzko eztabaida antolatze arauak. (23. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, garapen ekonomiko eta sozialerako finantzaketa eskuratzeari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, garapen ekonomiko eta sozialerako finantzaketa eskuratzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Finantzaketa eskuratzeko modua izatea funtsezkoa da gure gizartearen garapen ekonomiko

eta sozialerako. XX. mendearen hasieran Nafarroako herritarren beharrezan erantzuteko finantzatresna publikoak sortu zituztenek ere gauza bera pentsatzen zuten. Gaur egun, ordea, Nafarroako Kutxa desagertuta, hain zuzen ere bere sorrerako printzipioekiko arrotz jarduteagatik, Nafarroako herritarrek jada ez daukate ekonomia- eta finantzatresnarik lehentasun gisa daukanik gure gizartearen beharrezan erantzuteko jardutea.

Horrenbestez, gure parlamentu taldearen ustez, funtsezkoa da aztertzea zer aukera dagoen eta zer jarduketa egin behar diren Nafarroak tresnak eduki ditzan finantzaketa zalu bat eskuratzeko, gure herritarren, enpresen eta erakundeen beharrezan eta interesekin lotuta.

Hartara, parlamentari honek jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari finantzaketa eskuratzearen arlo orokorra dela-eta; zehazki, Nafarroan bultzada publikoko finantza-erakunde berri bat sortzeko eta hura baliabidez hornitzeko borondatea eta aukera ezberdinak direla-eta.

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorriko dio Eledunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorriko baitio Eledunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Parlamentuan aurrekontu bulego bat sortzeko mozio hau aurkeztu du.

Nafarroako Alderdi Sozialistak Nafarroako Parlamentuan bulego ekonomiko bat bultzatzeko konpromisoa hartu zuen bere gobernu-programan, legebiltzar honek Gobernuaren aurrekontu-kudeaketa kontrolatzeko xedez, bai eta aurkezten diren lege proiektuen oroitidazki ekonomikoa aztertzeke ere. Parlamentarismo moderno batean oinarritutako proposamena zen; hartara, ekidin eginen litzateke Gobernuak Parlamentuaren kontrola saihestea bere aurrekontu-kudeaketari dagokionez,

eta ekidin eginen litzateke Parlamentuak legeak onestea lege horien inpaktu ekonomikoa ezagutu gabe.

Azken batean, Parlamentuaren eginkizunak are gehiago indartzea lekarke horrek.

Geroago, lau alderdiek sinatutako gobernu-programan ere Parlamentuan aurrekontu bulego bat sortzeko konpromisoa hartu zen, helburu bertsuekin.

Horen esperientzia sendoa dago esparru anglosaxoiko herrialdeetan; bereziki, AEBetan. Bai eta Europako zenbait legebiltzarretan ere. Gorte Nagusietan jada badago gisako bulego bat Estatuaren aurrekontu orokorren betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko eta ganberen organoei, diputatuei, senatariei eta parlamentu-taldeei aholku teknikoak emateko. Orobat, diru-sarrera eta gastu publikoetan ondorioak dituen legegintzajardunaren jarraipena egiteko. 37/2010 Legea, azaroaren 15ekoa, Gorte Nagusietako Aurrekontu Bulegoa sortzen duena.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Parlamentuko Mahaiak, bi hilabeteko epean, Nafarroako Parlamentuan aurrekontu bulego bat sortzeko proposamen artikuludun bat igorriko dio Eledunen Batzarrari, bulegoa sortu aitzin hark proposamena azter dezan.

Testua eztabaidatu ondoren, proposamen hori lantalde baten bidez bideratuko da, kasua bada Legebiltzarraren egungo Erregelamendua aldatzeko.

Iruñean, 2015eko urriaren 2an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2016rako aurrekontuetan emakumeen elkarreentzako diru-laguntzen kontusail bat jaso dezan eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren aurrekontua handitu dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2016rako aurrekontuetan emakumeen elkarreentzako diru-laguntzen kontusail bat jaso dezan eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren aurrekontua handitu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atzera egin dezan azken legegintzaldian berdintasunaren eta genero indarkeriaren arloan aplikatutako murrizketetan.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak, 2015eko irailaren 18an bere departamentuaren ildo estrategikoak azaltzeko agerraldian, ildo estrategiko gisa ezarri zuen, emakumeek gizartean parte-hartze erreala izan dezaten errazte aldera, "emakumeen egoera eta posizioa hobetzeko bideak sustatzea, esparru guztietan emakumeen ahalduntze pertsonal eta kolektiboa oinarri. Hor sartzen da elkarrekin eta

kolektiboek parte hartzeko bideak bultzatzea eta hobetzea edo, modu zuzenagoan eta luzamendurik gabe, Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua indartzea eta 2012tik aitzina kendutako diru-laguntzen deialdirako kontusaila berreskuratzeko lan egitea."

Nafarroako Gobernuaren 2013rako aurrekontuetan guztiz kendu zen emakumeen elkarreentzako eta berdintasun programak gauzatzen dituzten bestelako entitateentzako diru-laguntzen deialdia; hartara, elkarre horiek foru administrazioaren inolako laguntza ekonomikorik gabe gelditu ziren.

Halaber, % 35 murriztu zen berdintasunaren arloko jarduketetarako diru-laguntzetarako inbertsioa. Murrizketa horiek ez dira bertan behera utzi hurrengo aurrekontu ekitaldietako bakar batean ere.

Gainera, emakumeen edo/eta feministen elkarrekin egindako lana ez du ordeztu Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua zena inongo ekintzak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2016rako aurrekontuetan emakume-elkarreentzako diru-laguntzetarako kontusail bat jaso dezan, halako moduan non kontusail hori berreskuratzeko lan egiteaz gain kontusaila berreskuratu eta aurrekontuetan islatu gera dadin.

Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Berdintasunerako Institutuarentzako aurrekontua, hala berdintasuna sustatzeko nola genero indarkeriaren aurkako borrokarakoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 6an

Eleduna: María Chivite Navascués

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera.**

**MOZIOA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen Nekazaritzako Ustiapenen Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta martxoaren

22ko 3/2007 Berdintasunaren Lege Organikoa landu ditzan eta horietan sakon dezan, emakumeek nekazaritza sektorean erabateko sarbidea izan dezaten sustatze aldera. Mozioa 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie Volkswagen-ek Nafarroan duen lantegiko zuzendari eta langileei.**

**ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

Bere babesa adierazten die Volkswagen-ek Nafarroan duen lantegiko zuzendari eta langileei, lantegiaren enpresa-taldean egunotan sortu den egoera dela-eta.

Aitortu egiten ditu Volkswagen-ek Nafarroan duen jarduerak Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialerako dakartzan onurak. Berezi-ki, nabarmena da enpresak Nafarroan daukan jardunak enpleguarentzat daukan garrantzia: 5.000 langile ditu enpresan bertan, eta beste 8.000 pertsonak lan egiten dute Landabengo lantegiarekin zerikusia duten beste enpresa batzuetan.

Volkswagen-ek Nafarroan duen lantegiaren lana, ospea eta produkzio errentagarria defenda-

tzen ditu. Haren lana objektiboki nabarmendu dute zenbait instantziak, zeinek taldearen ibilgailu-produkzio lantegien artean onenetariko eta efizientenetariko bat dela adierazi baitute. Merezimendu hori bat dator Landabengo industrialdean dagoen lantegiko langile guztien profesionaltasunarekin eta lan onarekin.

Parlamentu honek adierazten du borondatea daukala enpresaren jarduera normaltasunez mantentzea bermatzeko eta aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko beharrezkoa den laguntza emateko.

Hori guztia ez da eragozpena izanen beren jardunarekin kaltea eragin duten enpresa-taldeko arduradunek kasuko instantzietan erantzun dezaten.”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen baitu lehentasuna eman diezaion, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide den aldetik, Mendebaldeko Sahararako Bake Plana betetzeari.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du lehentasuna eman diezaion, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide den aldetik, Mendebaldeko Sahararako Bake Plana betetzeari, luzamendu gehiagorik gabe lortze aldera justiziatzeko eta behin betiko konponbide bat, zeinak nahitaez eskatzen baitu Saharako herriaren autodeterminazio eskubidea gauzatzea, erreferendum bat eginda.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, ezinbestekoa da, Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSO-Mendebaldeko Saharan Erreferenduma egiteko Nazio Batuen Erakundearen Misiok Mendebaldeko Saharako biztanle sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babes-teko lana areagotu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde publikoak premiatzen ditu laguntza solidario eta humanitarioa areagotu eta gauzatu dezaten, hala Tindufeko kanpamentuetako errefuxiatuentzako nola Mendebaldeko Saharako biztanle sahararrentzako, eta Saharako gatazka konpontzearen alde Legebiltzar honek harturiko konpromisoa berritu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die hedabideei, elkartasun-erakundeei eta gizarte zibilari, Saharako herriaren errealtatearen berri eman dezaten, eta eskertu egiten du unibertsitatearen, epailetzaren eta elkartasunaren arloetan askatasunezko etorkizun baten alde lan egiten duten profesionalen ahalegina.”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu giza eskubideen aldeko ekintzaile saharar Hassanna Aaliaren atxiloketa.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du giza eskubideen aldeko ekintzaile saharar Hassanna Aaliaren atxiloketa.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Barne Ministerioak Hassanna Aaliari asilo politikorako eskubidea aitortzea eta hark aurkeztutako nazioarteko babes eskaera onartzea, 12/2009 Legean ezarritakoarekin bat.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan

giza eskubideak urratzeak kezkatuta daukala, eta errepresio egoera hori amai dadin eta preso politiko saharar guztiak aska daitezela exijitzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak Saharako herriarekiko bere konpromisoa berresten du, bai eta konponbide justu eta behin betiko bat lortzera bideratutako ekimen politiko eta sozial guztiekiko bere babesa ere, Saharako herriaren autodeterminazio eskubide zilegiaren defentsan, erreferendum libre eta erregular baten bidez, bukatu gabe dagoen deskolonizazio prozesuaren azken urrats gisa.”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazten baitu sakondu eta landu ditzan Nekazaritzako Ustiategiaren Titulartasun Partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta Berdintasunaren 3/2007 Lege Organikoa, eta Emakumezko Nekazari eta Abeltzainen Estatutu bat presta dezan.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazten du:

Bat: Nekazaritzako ustiategiaren Titulartasun Konpartituari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legea eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin-garrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa landu eta sakondu ditzan, Nafarroan arau eta neurri batzuk oneste eta aplikatze aldera, emakumeek erabateko sarbidea izan dezaten nekazaritza sektorean eta jarduera ekonomiko horretan iraun dezaten.

Bi: Gara dezan, ahalegin bereziz landa-inguru-nean, zainketa-lanetarako sare publiko bat (haurtzaindegiak, eguneko zentroak eta abar), emakume nekazari eta abeltzainek ez diezaieten

beraiek bakarrik erantzun behar izan gizarteak emakumeei esleitzen dien zainketa-roletik eratorritako betebeharrei. Zerbitzu horiekin batera, komunikazio-, transmisio- eta sentsibilizazio-kampainak egin beharko dira, erantzunkidetasun arduratsuz baliatzeak familia osoarentzat eta gizartearentzat dauzkan urgentziari eta onurei buruz.

Hiru: Emakume nekazari eta abeltzainen estatutu bat taxutu dezan, Nafarroan norabide horretan lan egiteko urgentziatzeko lanabes gisa; esate baterako, nekazaritzarako laguntzen (nekazaritzako politika bateratua, landa garapeneko programak) banaketan emakume nekazari eta abeltzainentzako ekintza positiboko neurri gehiago zehaztu eta gauzatzeko”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, Hitzarmen Ekonomikoa aldeztekoa.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitatearen Hitzarmen Ekonomikoaren defentsa garatu beharra dagoela; izan ere, gure foru araubidearen adierazpide garrantzitsu bat da, eta Nafarroako herritarrei dagokien eskubide historiko eta demokratiko bat.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten ditu zenbait ordezkari politikoren adierazpenak eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egindako txostenean jasotako baieztapenak, zeinek auzitan jartzen baitute Nafarroaren elkartasuna, Nafarroako Foru Araubidearen Hitzarmen Ekonomikoa den tresna bereki baten aurkako erasotzat jotzen dituelako.

3. Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko erakunde guztiak premiazten ditu Nafarroari dagozkion eskubide guztien defentsan lan egin dezaten legegintzaldi honetan eta, zehazki, Nafarroako Foruaren Hobekuntzan aitorturik dituen eskumenak garatzen.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, politika eta zerbitzu publikoak finantzatzeko egungo zailtasunak gaindituko dira baldin eta iruzur fiskala eta paradisu fiskalak desagertzen badira, sistema fiskal eraginkor eta progresibo bat taxutzen bada eta arau austerizidak indargabetzen badira; esate baterako, Konstituzioaren 135. artikulua eta aurrekontu egonkortasunari buruzko lege organikoa.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroaren finantza- eta zerga-autogobernuaren aurkako eraso bat dela Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreforma, zeinaren bidez erabateko



lehentasuna eman baitzitzaion zor publikoa ordaintzeari, eta artikulua hori indargabetu beharra dagoela adierazten du.

6. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroaren finantza- eta zerga-autogobernuaren aurkako eraso bat dela Aurrekontu Egonkortasunari eta

Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, eta lege hori indargabetu beharra dagoela adierazten du”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak hitzarmen ekonomikoa defendatzen baitu, eta justifikaziorik gabeko erasoak arbuiatzen baititu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Hitzarmen Ekonomikoa defendatzen du, zeina gure zerga- eta tributu-autogobernuaren adierazpena baita; izan ere, tresna erabat konstituzional bat da, demokratikoa, justua, solidarioa, objektiboa eta gardena.

2. Arbuiatu egiten ditu zenbait arlotatik egiten diren justifikaziorik gabeko erasoak, errealitateetik eta zorrotasunetik urrun dauden ikuspegien isla direnak eta Hitzarmenaren muinarekin inolako zerikusirik ez duten helburuak bilatzen dituztenak”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Landa Ingurunekeo Emakumearen Nazioarteko Egunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Landa Ingurunekeo Emakumearen Nazioarteko Egunarekin, eta balioan jartzen du landa ingurunean bizi diren milioika emakumeen garrantzia.

2.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak 2016rako aurrekontuen proiektuan indargabetu ditzan azken urteotan gizarte-politiketan eman diren murrizketa guztiak; bereziki, toki entitateek eskaini eta emandako zerbitzuetan.

3.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak susta dezan

mikroenpresak sortu ahal izatea, landa ingurunean negozio bat jartzea erabakitzen duten landa ingurunekeo emakumeek eta nekazaritza jasangarria dedikatzea erabakitzen dutenek.

4.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak bereziki bultzatzea landa inguruneetan enpresak jartzea, horien dinamizazio handiago bat eta lanpostuen eskaintza handiagoa izatea lortzeko.

5.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak Nekazaritza-ustategien Titulartasun Konpartituari buruzko Legea sustatu eta abiaraz dezan, eta berariazko prestakuntza eman diezaien arlo horietako ardura duten funtzionarioei, haiek ere aholkularitza egozia eman dezaten beren aldetik.

6.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da legedi indardunean jasotzea tokiko enpresen baremazio positiboa egin ahal izateko gogoetak; bereziki, emakumeek eraturako enpresena, onura sozial nahiz ekonomikoak ekartzen dituztenena, bai eta

udalarentzako berdintasunaren esparruan ere; esate baterako, bizilagunak kontratatzea edo

herrian egin edo/eta landutako produktu jasangarrien hornidura.

7.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, ezinbestekoa da parte-hartze parekidea ziurtatzea Nekazaritza Politika Erkidearen aplikazioan”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere erabateko gaitzespena adierazten baitu Osborneren zezena, zeina Tuteran baitago, eraitsi dutela-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Bere erabateko gaitzespena adierazten du ekintza hori dela-eta, zeina ondare kultural eta

artistikoaren parte baten aurkako eraso bat baita, indarkeriazko ekintza erradikalen bitartezkoa.

2.- Bere nahia agertzen du, sabotaje honen egileak atxilotuak izatekoa eta haiek egindako ekintza ordaintzekoa”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak alde-kotasuna adierazten baitu Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna-ren kariatara Nafarroan egiten diren ekitaldiak direla-eta.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako adierazpen instituzional hau egiten du, urriaren 19an Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta:

Bat: Egun horren kariatara Nafarroan egiten diren ekitaldien alde dago, eta nafar herritarrei dei egiten die horietan parte har dezaten; bereziki, Bularreko Minbiziaren aurkako V. Lasterketa Solidarioan, zeina urriaren 25ean egingen baita.

Bi: Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Nafarroa arrosaz tindatua” kanpainarekin, zeinetan parte hartuko baitu urriaren 19an, eta gonbit egiten die ekitaldi horretan parte har dezaten Nafarroako Gobernuari, parlamentariei, bularreko minbiziaren aurkako borrokan lan egien duten Nafarroako taldeei, herritarrei oro har eta hedabideei”

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen garapenari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Parlamentuak Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea one-

tsi zuen. Lege horrek Nafarroako Parlamentua behartzen du zenbait neurri har ditzan legea bete dadin, eta Nafarroako Gobernuak ere egiteke dauka legearen erregelamendu bidezko garapena.

Legea onetsi zenean, Gobernuak Nafarroan daukan ordezkariak, Carmen Albak, jendaurrean adierazi zuen litekeena zela Estatuak errekurtsioa paratzea. Ondoren heldu zen Estatuaren eta Nafarroaren arteko Lankidetzaren Batzordearen akordioa, 2015eko ekainaren 10eko data daramana eta 2015eko ekainaren 22ko Estatuaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zena. Horrenbestez, negoziazioak hastea erabaki zen, aipatu legeari buruzko desadostasunak gainditze aldera, Konstituzio Auzitegian balizko errekurtsio bat jarri baino lehenagoko urrats gisa.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak egin al du edo egingen al du urratsik 16/2015 Foru Legea garatzeko? Konstituzio Auzitegian errekurtsorik jarriko balitz, Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusten du biktima horien errekonozimenduari eta erreparazioari begira? Zer neurri aurreikusten du Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren jarduketaren esparruan haiekiko elkarlana sustatzeari begira?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Sarrigurengo osasun etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo osasun etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Iragan urriaren 6an, Eguesibarko Udalaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Sarrigurengo Osasun Etxearen ordutegia luzatzea, halako moduan non ibarreko bizilagunak arratsalde ere joaten ahalko baitira zentrora.

Hona galdera:

Osasun Departamentuak noiz gauzatuko du eskatu zaion ordutegi-luzatze hori?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernua erretiratu egin den irakasle funtzionario baten aurka 2012ko Riau Riau-an izandako istiluetan parte hartzeagatik zegoen akusazio partikularretik.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernua erretiratu egin den irakasle funtzionario baten aurka 2012ko Riau Riau-an izandako istiluetan parte hartzeagatik zegoen akusazio partikularretik.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernua zergatik erretiratu da irakasle funtzionario baten aurka zegoen akusazio partikularretik 2012ko Sanferminetako Riau Riau-an izandako istiluetan eta udaltzainen aurkako erasoetan parte hartzeagatik egindakotik?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Galdera, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide berriei eta finantzaketa iturriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gáratek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Garapen Ekonomikorako kontseilariak irailaren 15ean egindako agerraldian, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu zuen Nafarroako Foru Komunitatean enpresen likidezia arazoak konpontzeko bide eta finantzaketa iturri berriak bilatzeko ardurara.

Horrenbestez, galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

Galderaren testua

**1.** Nafarroako Gobernuak zer lerro onetsiko ditu enpresek finantzaketarako sarbidea eta inbertsiorako babesa izan dezaten?

**2.** Kontseilariak zer programaren bidez eman nahi die eragingarritasun handiagoa Nafarroako enpresa-proiektuen berrikuntzari eta teknologiarri?

**3.** Zer programa jarriko dira abian enpresa-proiektuei balio erantsi bat emate aldera, haien lehiakortasuna eta kanpo-merkatuetako posizionamendua sustatzeko?

**4.** Programa horiek abian jartzeak zer kostu izanen du Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuetan?

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa.**

*DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Iruñeko haur eskolei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Iruñean, eta Iruñerrian oro har, eskaera oso handia egon da azken urteotan haur eskoletan euskarazko eskaintza egin dadin. Iruñean bertan dauden haur eskola horietako batzuk (Santa Teresa, San Jorge, Nuestra Señora de Roncesvalles, Nuestra Señora de Los Ángeles eta Ninia Etxea)

Nafarroako Gobernuak berak kudeatzen ditu, haren menpekoak dira, eta guztietan gaztelaniazkoa da eskaintza bakarra.

Galdera

Ba al du Nafarroako Gobernuak haur eskola horietan euskarazko eskaintza bideratzeko planik? Hala baldin bada, zein izanen dira urratsak eta zein horretarako egutegia?

Iruñean, 2015ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

---

**Galdera, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Beriaingo udalerriko hezkuntza-azpiegiturako beharrei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen darabil Beriaingo hezkuntza arloko azpiegitura-beharrizanei dagokienez?

2.- Aurreikusi al du, eta zer epetan, herriko ikastetxe publikoa birmoldatzeko edo berri bat eraikitzeke obrarik?

Corellan, 2015eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren irizpideei buruzkoa, irakasleen ordezkapenari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Esther Korres Bengoetxeak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2015-2016ko ikasturte honetan, Nafarroako ikastetxeetan, urtero bezala, irakasleen ordezkapenak egin behar dira. Gai honek hezkuntzaren kalitatearen bermearekin zerikusi handia duela kontuan izanda, honako hau jakin nahiko genuke:

Galdera

Zeintzuk dira Hezkuntza Departamentuak eta, bereziki, Giza Baliabideek irakasleen ordezkapenak betetzeko jarraituko dituzten irizpideak?

Iruñean, 2015eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS ETA JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNEK EGIN DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunek aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikirik dauden eta Nafarroako Gorteetako kide diren Alberto Catalán Higuera eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasiak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dute, idatziz erantzun dakien.

Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuak ezartzen du nola erabili behar den eta zeintzuk diren Gobernuaren sinbolo ofizialaren ezaugarriak. Zioen azalpenak hauxe dio:

“Nafarroako sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeak xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta erakundearen sinbolo edo logotipo nagusi gisara gordeko

direla Nafarroako bandera eta armarrria. Halaber, ezartzen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako armarrri ofizialaren logotipo bat hartzen ahal duela erakundearen irudi gisa, hau da, diseinu grafiko errazago eta gaurkotua, garaian garaiko gustu estetikoaren arabera.

Irudi homogeneoa eta begirada batean ezaguterreza izatea lortzeko, komenigarria da sinbolo generikoaren eta "Nafarroako Gobernua" hitz soilen erabilera indartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unitate guztietan eta Departamentuaren edo unitatearen izena daraman sinboloa barneko edo berariazko aplikazioetara mugatzea.

Halaber, Gobernuaren sinbolo grafiko eta Foru Komunitateko Administrazioaren erakunde autonomoen sinboloak batera agertzen diren egoerak ere arautu behar dira".

Nafarroako Gobernuak ordura arte indarrean zuen sinbolo grafiko urriaren 31ko 206/1985 Foru Dekretuak onetsiz geroztik erabiltzen ari zen, eta zenbait aldaketa behar zituen premia berrietara egokitzeko. Aldaketa horiek maiatzaren 3ko 189/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Hartara, haiek onesteko, kasuko espedientean jasota ageri denez, Nafarroako Kontseiluak aldeko irizpena ematea behar izan zen, eta 2004ko martxoaren 29an eman zuen.

Azken egunotan jakin da –gaur urriaren 6a da– foru dekretuaren eranskinetan jasota ez dagoen logotipo ofizialaren aplikazio zehatz bat erabiltzen ari dela Gobernua, baita bere web orrian ere.

Hori dela-eta, honako galderari idatziz erantzutea nahi dugu:

Zein egunetan eman dira jarraibideak foru dekretuan jasota ez dagoen logotipo ofizialaren aplikazio hori erabil dadin?

Zein egunetatik ageri da Gobernuaren web orrian?

Zer administrazio-unitatek eman zituen jarraibide horiek? Zer foru arauen bidez onetsi zen?

Zer txosten egin dira horri dagokionez?

Nafarroako Kontseiluari irizpenik eskatu al zaio?

Zer gobernu-bilkuratan onetsi da aldaketa hori?

Horren erabilerari buruzko jarraibiderik taxutu al da departamentuentzat eta Nafarroako Gobernuaren menpeko erakundeentzat? Noiz?

Corellan, 2015eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Iruñean, 2015eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia



## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legean ezarritako betebeharrak betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Juan Luis Sánchez de Muniáinek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeko 63. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek ezartzen dute Gobernuak kideek eta Foru Administrazioiko goi kargudunek jakitera eman behar dituztela beren ordainsariak, ondasunak eta ondare-eskubideak.

Goi kargudunen bateraezintasunei buruzko Foru Legeko 12. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek,

berriz, ezartzen dituzte goi kargudunen aitortpenaren edukia eta hori aurkezteko epea, zeina ezin luzatuzko bi hilabetekoa izanen baita, karguaren jabetza hartzen denetik zenbatzen hasita.

Azkenik, legezko betebeharrak garatzen eta zehazten dituen 6/2013 foru Dekretuko 2. artikuluko 1. idatz-zatiak eta 5. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek berretsi egiten dute aitortpena aurkezteko epea, eta ezartzen dute nahitaez eman behar direla jakitera goi kargudunen ordainsariei, jardueri eta ondareari buruzko zenbait alderdi.

Legeek eta foru dekretuak ezarritako epe luzaezina gaindituta, gobernu irekiaren orrian ikus daiteke bertan ez dela ageri foru lege horiek ezarritako informaziorik. Aitzitik, foru administrazioiko goi kargudun jada ez diren zenbait pertsonari buruzko informazioa ageri da oraindik, nahiz eta ez zen halakorik ageri behar; horrenbestez, Gobernuak haien eskubideak urratzen ditu.

Hori dela-eta, haxe jakin nahi dugu:

– Gobernuak noiz beteko ditu Gardentasunari buruzko Foru Legeak ezarritako betebeharrak horiek?

– Zein da informazio hori argitaratzeko atzerapenaren arrazoia?

– Gobernuak noiz gaurkotuko du orri hori, Foru Administrazioiko egungo goi kargudunen informazioarekin?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa.**

*MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoak 2016rako aurreikusita dituen lan eskaintza publikoaren deialdiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Administrazio Publikoak zenbat lan eskaintza publiko aurreikusi du deitzea 2016an?

Zer alorretan?

Zenbat lanpostu eskaintza bakoitzean?

Zein datatan?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, sinbologia frankista erretiratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

an, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2012ko abenduaren 12an, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, Amezketa jaunak defenditu zuena. Hona onetsitako erabaki proposamenak:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernua tematzea Nafarroako Jauregiko armarriko gurutze erramuduna, San Ignazio etorbideko fatxadako frontoikoa, mantentzen, eta mozio hau onesten denetik aitzina gehienez ere bi hilabeteko epean erretira dezan exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Nafarroan oraindik dauden sinbolo frankisten katalogo bat egin dezan, horien kokalekua zehaztuta. Katalogoak hiru hilabeteko epean egon beharko du eginda eta Nafarroako Parlamentuaren esku.

3. Hurrengo hiru hilabeteetan, Gobernuak aipatu katalogoan jasotako sinbolo guztiak kenduko ditu.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Zer jarduketa orokor aurreikusi dituen Nafarroako Gobernuak, sinbolo frankistak kentzeko.

2. Zehazki, Nafarroako Jauregiko frontoikoa eta saloi isabeldarrekoa.

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

## **Galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta garatzeko.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer ekimen jarriko dituen abian Nafarroako Gobernuak zinemagintza sustatu eta garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zinemagintzaren sustapenari eta garapenari dagokienez, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri ezartzeko asmoa du –fiskalak, prestakuntzakoak, beste herrialde batzuekiko lankidetzaren arlokoak, eta abar–, zinemagintza sustatzeko eta garatzeko?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Kutzako Patronatuaren osaerari buruzkoa.**

### **MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzako Patronatuaren osaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Kutzako Patronatuaren osaera dela-eta, parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen daukan egungo patronatuko kideek bertan jarraitzeari dagokionez.

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko kideen ondasun aitortzei buruzkoa.**

### **ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko kideen ondasun aitortzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Goi kargudunen bateraezintasunei buruzko Foru Legeak ezartzen du Nafarroako Gobernuko

kideek bi hilabeteko epea dutela, karguaren jabetza hartzen dutenetik aitzina, beren ondasunei buruzko aitortzea aurkezteko.

Kontuan hartuta legegintzaldi honetan jabetza hartzeko ekitaldia iragan uztailaren 23an egin zela, gobernuko kide eta goi kargudun guztiek irailaren 23a baino lehen jakinarazi behar zituzten, lege horren arabera, beren ordainsariak, ondasunak eta ondare-eskubideak.

Kontua da, ordea, legeak ezartzen duen bi hilabeteko gehieneko epea orain dela zenbait egun iraungi zela, eta Nafarroako Gobernuko inork ere ez duela publiko egin oraindik bere ondasunen aitortzea.

Horrenbestez, Nafarroako Alderdi Popularrak honako galdera honi erantzutea eskatzen du:

Nafarroako Gobernuak nola justifikatzen du Gobernuko inork ere egin ez izana urriaren 8ra bitarte –alegia, goi kargudunen bateraezintasunei buruzko foru legeak ezarritako gehieneko epea 15 egunez gaintuta– bere ondasunen aitortzea? Noiz egingen dute?

Iruñean, 2015eko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, pertsona transexualen arreta integralari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadila Virginia Aleman Arrastio andreak pertsona transexualen arreta integralari buruz aurkezturiko galde-

ra, zeina 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak ezartzen duenez, 4. artikuluko 1. idatzatiko j) letran hain zuzen, Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia osatuko dute, besteak beste, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko bi kidek, hark hautatuak.

Joan den maiatzaren 24an Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak egin zirenez gero, Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan dituen ordezkariak hautatzea bidezko da, aipaturiko foru legeko 6. artikuluari jarraikiz, Hezkuntza kontseilariak irailaren 7ko idazkian adierazten duen bezala. Hortaz, ordezkari horiek izendatzeko arauak onetsi beharra dago.

Horrenbestez, ondokoa ERABAKI DA:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntza Batzorde

Nagusian dituen bi ordezkariak hautatzeari buruzko arau hauek onestea:

1. Hautaketa Hezkuntza Batzordeko kide diren foru parlamentarien artean egingen da, txartel bidezko bozketa isilpekoaren bidez.

2. Aldi berean hautatuko dira bi ordezkariak, eta, zenbat ordezkari hautatu behar den, horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelean batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak.

3. Boto gehien lortzen dituzten bi parlamentariak izanen dira hautatuak.

4. Postuetakoren baterako berdinketa gertatuz gero, berdinketa hautsi arte errepikatuko dira bozketak.

5. Hautagaiak aurkezteko epea **urriaren 19ko 12:00etan** amaituko da.

**Bigarrena.** Erabaki hau jakinaraztea parlamentu-taldean eta foru parlamentarien elkarrean eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **“Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoan” gaiari buruzko eztabaida antolatze arauak.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Ondoko arauak onestea, zeinen bidez antolatzen baita “Herritarren parte-hartze eta erabakitze eskubidea esparru ekonomiko, sozial eta politikoan” gaiari buruzko eztabaida.

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen eledunaren mintzaldiarekin, gehienez ere hogeita minutu iraunen duena.

Ondoren, eskatzen duten parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarten eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

**2.** Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernu kide bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, aurreko arauan ezarritako iraupen berarekin.

**3.** Eztabaida bukatuta, bilkura ordubetez eten da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak.

Proposamenak bilkura eten eta hamabost minutuko epean aurkeztu beharko dira. Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, proposamenak onartuko dira eta parlamentu-taldean edo foru parlamentarien elkarten eledunei helaraziko zaizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

**4.** Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerrari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

**5.** Proposamenen eztabaida amaiturik, aurkezpen-hurrenkerrari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira.”

**2.** Agintzea arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

**3.** Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuari eta parlamentu-taldean edo foru parlamentarien elkarten eledunei.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

